

GURE BANDERA. ¹

Kantea Gernikako Arboleari.

Anboto dakust triste, bai, triste,
 Negarrez Oiz-mendia,
 Euskeldun goyak danak diñoste
 «Illten da zarra guztia».
 Ill zan, ill Lelo, ill Lekobide,
 Ill zan, ill zan Jaun Zuria,
 Ill ziran gure gizon andiak,
 Iya ill Euskal-erria,
 Alan ezpada esan daiala
 Arbola orrek egia.

Arech maitea, esan egizu
 Euskeraz berba egiñik,
 Iñoz aurkitu ete dan lur au
 Tayu onetan geiñorik;
 Autortu zaite zeu bere egon
 Bazara orren sikurik,
 Bazara egon iñoz orrelan
 Ezkurrik emon eziñik,
 Urte askogaz ukatu eta
 Bazengoz legez zarturik?

Autortu zaite lotsa bagarik
 Arbola entzutetsua;
 Autortu zaite ¿etzara zu zeu
 Arech danetan santua?
 Esan egizu zeure gloria
 Zelan jarri dan gautua;
 ¿Nundik ta nora gaur zu zagozan
 Orrenbestean aztua,
 Iñoz ez izan baziñan legez
 Arbola Gernikakua?

Amabi urte tristeak dira,
 Ill jatazala ¡ai! pozak,
 Zerren buztartu ein ginduezan
 Sekula ez ta arrotzak,
 Eta euren nausi gaztelar batek
 Jaurtigi eutsun ayotzak,
 Zanik onen bat ebagi eutsun,
 Besangok ichi aifñ motzak;
 Ordurik ona pozik ez dauka
 Pozik ez, zure biotzak.

(1) Oda premiada con un *objeto de arte* en las fiestas euskaras de Guernica y Luno, en Setiembre de 1888.

Ordurik ona malkoz zakustaz
 Arech lenago dontsua;
 Zergaitik jausi jatzun chimista
 Sutsu bat donga gaiztua;
 Agaitik dozu burua billos̄
 Iya orririk bakua;
 Agaitik zagoz lengo aldean
 Aiñ asko aguratua,
 Zure azpia ¿nok kantau daike
 Dala Batzarren lekua?

Beti ikusi or zinduezan
 Errege danak itzalez,
 Zarealako zu Arbola bat
 Zerutik jatsia legez,
 Zure erramok direalako
 Irabaziak odolez,
 Laketu baga iñoz loituten
 Dongen siniste zantarrez,
 ¡O! baña miña gaur erdeldunak
 Darabilguez dandarrez!

Eurok indarrez ebagi eta
 Darabilguez lurrean,
 Darabilguez lotsabagarik
 Sua egiteko ustean;
 Anchiñakoak erdeldunen bat
 Balebe euren aurrean
 Ikusi zure orri bat bere
 Zapaltzen ostikopean,
 Ill edo goitu egingo eben
 Beraaz galtzairu artean.

Ill edo goitu, jadichi ziran
 Garaipen andi zarrenak,
 Goitu eginda gorde zirean
 Lege aiñ eder eurenak,
 Goitu eginda egin zirean

Munduanezagunenak;
 Agaitik ziran kantetan nun nai
 Gloria euskaldunenak;
 Zugaitik illda eukezelako
 Libertaderik onenak.

Etzinduezan, Arech maitea,
 Euriak utsik or azi,
 Etzinduezan inontz bigunak
 Perlakaz bakarrik jadichi,
 Espada milla gerretan gogor
 Asabak einda esetsi,
 Euren odola suster danetan
 Egin zenduan iruntsi,
 Ais erreak zu igarterik
 Iñoz ez eyen jadichi.

Sarritan izan ziran benetan
 Uda odeitsu tristiak,
 Sarri, bai, sarri Afrika aldeko
 Trumoi ots bildurgarriak;
 Zugana eldu ezin zirean
 Baña euren oñaztarriak,
 Beti berderik, beti ezorik,
 Gorde zenduzan orriak,
 Euren azpian bizi zeitezan
 Otso bi izugarriak.

Eurokaz batzen iñoz or ziran
 Bai, Legoiaren umiak,
 Eurok arekaz zireanean
 Lagun ta adiskidiak,
 Baña betozen onuntza beste
 Pistia odol zaliak,
 Ezarriaz bat Bizkayak bere
 Chakur aiñ bildurgarriak,
 Ikaraz laster egiten eben
 Ūs, Maomaren semiak.

Agurtzen zaitut orresēgaitik
 Gure garaitzen bandera;
 Agurtzen zaitut izar argizko
 ¡O! estandarte ederra!
 Agurtzen zaitut iraun dagizun
 Zedro tantaien antzera,
 Bizi zaitezcan eurak legeche
 Millaka urteetan aurrera,
 Zabaldtu daizun zeure kerizpe
 Barria Euskal-lurrera.

Osatu zaitte eta barriro
 Jasoizu bekoki ori,
 Zerua bera jo arteraño
 Lauburu zarra eregi;
 Bere besook egin dayoen
 Itzala arranoari,
 Erakusteko zer dan Bizkaya
 Oraindik mundu danari,
 Ez eutsalako buztartzen ichi
 Iñoz Erromatarrari.

Bizkortu zaitte, ainbat lasterren,
 Sendatu zeure zauria;
 Indar barriak artu egizuz,
 Alegeratu begia;
 Zabaldtu begi Lauburu orrek
 Bere zeruko argia,

Beti forudun izan dakigun
 Gure Euskaldun erria,
 Eta mundutik aldendu dedin
 Gaurko gach izugarria.

Oriē da, bai, osagarria,
 Gaurko gach guztien kontra;
 Zure gañetik ez da ekachik
 Egingo deuskunik bota;
 Zerren Bizkaya lenago chito
 Ikusiko dan lur jota,
 Gure odola errekek legez
 Ichasoagaz batuta,
 Arech gure au ikusi baño
 Geure Lauburu kenduta.

¡O! Lauburu ¡o! geure geurea;
 Gatoz gaur piestetara,
 Gatoz zugaitik, gatoz, gatoz zu
 Gernikan adoretara;
 Gatoz ¡o! Arech ezillgarria!
 Gatoz kerizpe onetara,
 Gatoz, bai, gatoz jakin dagien,
 Gatozan ona zetara,
 Gatozan danok zure azpian
 Emenche batuten gara,
 Ots egiteko bizi dedilla
 Gure Arbola laztana.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.